
SOZIOLINGUISTIKA

zertarako ??

SARRERA

Jende askok daki gure herrian euskara ez dela hizkuntza erromanikoa; ergatiboa duen beste hizkuntza bat aurkitzekotan, Europatik irten eta, Asia edo Ameriketaraino jo behar dela; gure adizkiek, Europako joeratik at berriz ere, NOR-NORI-NORK famatuak batera integraturik dauzkatenez gero, euskal aditza erabiltzea zail gertatzen zaiela erdaldunei, e.a.

Orain dela gutxi arte, ordea, oso jende gutxi arduratu da euskaldunen artean hizkuntzen erabilpenaren gorabeheraz.

Hots, Gramatikak hizkuntzen egitura azaltzen duen bezalaxe, Soziolinguistika deritzon zientzi adar berriak, hizkuntzen erabilpena (edo erabili-ezina) azaltzen du.

Erabiltzen ez den hizkuntza; horra hizkuntza hila. Eta alderantziz, Euskal Herriaren etorkizunerako, beraz, funtsezko jakintza da Soziolinguistika.

Oso onuragarria da beraz, diglosiaren arazoa, hizkera batu edo standard-aren arazoa, lege-saila, eta abar, beren hizkuntza arriskutan izan dituzten herriek nola gainditu zituzten ikustea. Mailaketa horretan hebraiera (Israel) eta gaelikoa (Irlandan) dira bi muturrak. Non gaude gu eta geure euskara? Hauxe izango litzateke liburuska honetako muina.

TXILLARDEGI.

OHARRA: Aldez aurretik jakin beza irakurleak, hitzaldiok, Txillardegiren aho-hizkeran emanik doazela eta ez artikulatu idatzi gisan; askoz ere bizitasun handiagoa agertzen bait dute .

Irakasle Elkarte